

«Nomada izateak kondaira asko sortu ditu, baina egia honakoa da: inon ez digute lekurik egin»

Alboan ditugu, gure herrikideak eta auzokideak dira, baita atari bereko bizilagunak ere, baina, oro har, gutxi dakigu ijitoez, euren kulturaz, sustraiez, historiaz. Oro har, beren ohituren eta usadioen inguruan zabaldutako usteak baizik ez ditugu ezagutzen eta maiz uste horiek okerrak izan ohi dira. Hori horrela, Kale Dor Kayiko elkarteak lan mardula eta beharrezkoa egiten du eremu askotan, betiere integrazioa nahiz elkarbizitza bultzatzea helburu. Besteak beste, familiei sostengua eta informazioa errazten edota erakundeentzat aholkulari lanak egiten ari-tzen da, eta, adibidez, funtsezko lana bete du 8oko hamarkadaz geroztik haur ijitoak hezkuntza sisteman txertatzeko. Hain zuzen ere, hezkuntzarena da elkar-tearen zutoina, lanean jarri zuten ardura nagusia.

Oscar Vizarraga lehendakariordea da elkar-tearen aurpegi ezagunenetako bat, eta bereganajo du GAUR8k. Bilboko Txur-dinaga auzoko egoitzaren atearak parez pare ireki dizkio bitxi-kiak, egiak, gezurrak, ibilbidea-ren nekeak eta pozak azaltzeko gertu.

Elkar-tearen estimazioen arabera, Hego Euskal Herrian 28.000 inguru ijito bizi dira egun. Zifrek ordea, ez dute zent-baki ofizialekin bat egiten, erakundeek ez dituztelako aintzat hartzen jatorri portugaldarra duten 3.000 ijito inguru, ezta 1.500 ijito euskaldun edo erro-mintxel ezta jatorri errumania-rreko beste 2.000 pertsona. Gainera, fluxu migratzaileak oso aldakor-ak direnez, bereziki az-

ken urteotan, zenbakiok ez dira zehatzak. Herrialdeka, Nafarroa eta Bizkaia dira ijito gehien- en bizileku, 8.000 eta 7.000 per- tsonekin, hurrenez hurren. Az- ken horietatik erdia Bilbo Han- dian bizi dira. Gipuzkoan 3.500 daude eta Araban 2.800 inguru.

Izatez, nomada izan da ijito herria, baina zentzu horretan hainbat fantasia hautsi nahi izan ditu Vizarragak. «Ez ginen hona heldu bidaiatzea gustuko

genuelako, ezta gure mundu ikuskeragatik». Dioenez, etenga- be mugitzearen arrazoia, %70 batean, jasan duten jazarpena izan da. Bidean odol asko isuri dutela dio, arrazakeria sufritu dutela. Oraindik ere egiten dute.

Estatu espainiarrera 1430. ur- tearen bueltan heldu ziren ijito- ak, gutxi gorabehera. Historia- ren arabera, XI. mendean utzi zuten beren herrialdea, egungo India eta Pakistan artean koka- tua. Beti ihesean, hamaika he- rrialde zeharkatu zituzten. Men- debalderantz abiatu eta Afrika iparraldeko bidea hartuz heldu ziren batzuk Estatu espainiarre- ra, Andaluziatik Europara sar- tuz. Beste batzuek, berriz, jaiote- rritik iparralderantz egin zuten, Turkia zeharkatuz. Azken horiek Kataluniatik eta Euskal Herri- tik barna heldu ziren Estatura.

«Nomada izateak kondaira as- ko sortu ditu, Jainkoak basamor- tuan bizitzera kondenatu gin- tuela, aberri-rik gabe, izenik gabe, madarikatuta... Baina egia honako da: ia herrialde bakar batean ere, inon ez esatearren, ez digute lekurik egin». Eta ijito- ek beren inguruan oso sare sen- do eta estua ehuntzen badute ere, neurri batean euren burua babesteko eta defendatzeko egin dutela dio. Globo-arraina-

ren adibidea jartzen du. «Hori izan da bizirauteko modua. Gu- re oinarri etnikoa gure familia da. Ez dugu boterea nahi zure familia gobernatzeko, botere za- ti bat nahi dugu gure familiek biziraun dezaten. Ez dago ijito politikaririk edo ijitoen alderdi- rik herrialderen bat gobernatzea helburu duenik. Ijito bat politi- kan sartzen bada bere herria de- sager ez dadin egiten du. Horrek eraman du hainbat ijito politi- kan sartzera, bereziki Europa Ekialdean», azaldu du.

Erromintxelak

Estatu espainiarrean bizi diren ijitoek ez dute romani hizkun- tza hitz egiten, kaloa baizik, ja- torrizko romani hizkuntzaren «mintzamen bat», ez baita dia- lektoa. «Gainera, romaniaren ja- torria izan arren, hizkuntza hori hitz egiten duen ijito batekin el- kar ulertzerik ez dugu», zehaztu du Vizarragak. Gramatika lati- noa ere badu, baita konkordan- tzian «akats handiak» ere, elka- rrizketatuak berak dioenez. Romania, aldiz, hizkuntza uni- bertsala da, mundu osoko ijito- ek elkar ulertzen dutelako, to- kian tokiko salbuespenekin edo eraginekin. Kaloarekin, berriz, Estatu espainiarreko, Portugal- go, Italia mendebaldeko eta Es-

OSCAR VIZARRAGA

KALE DOR KAYIKO

Ijitoen eskubideen defentsan lan egiten du Kale Dor Kayiko elkarteak. Bertako lehendakariordea den Oscar Vizarragak ijitoen historia, usadioak eta herri bezala dituzten nahiak azaldu dizkio GAUR8ri.

Oihane Larretxea de la Granja



Joaquin Lopez Bustamante, erakusketaren komisarioa. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

«LUNGO DROM», IJITOEN BIZIMODUA IRUDITAN

Europako gutxi- en handiena da ijitoena, eta, aldi berean, baita eze- zagunena ere. Iji- toen eguneroko bizimodua, beren historia, izan direna eta badirena, eta garaietara egokitzeko trantsi-

zioa nola egin duten jasotzen du datorren apirilaren 10era arte Donostiako Aiete auzoko kultur etxean ikusgai izango den «Ijitoen bizierak. Lungo drom» erakusketak. Hain zu- zen ere, *lungo drom* espresio- ak «bide luzea» esan nahi du romaniz.

Argazkiz soilik dago osatuta erakusketa, izan ere, Donos- tiara ekarri dena zabalagoa den «Vidas gitanas» erakuske- tareen zati txiki bat baino ez da. Jatorrizko erakusketak, objektuak, bideoak eta beste hamaika material biltzen ditu ijitoen unibertsoa ezagutaraz-



Argazkia: Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

tatu frantseseko hegoaldeko ijitoak komunikatzen dira elkar.

Euskal Herriko kasua, ordea, benetan berezia da. Izan ere, arrazoi antropologiko, soziologiko eta linguistikoak tarteko, beste herrietan izan ez zuen garapena izan zuen romaniak, ezberdina, erromintxela sortuz. «Bertako herriarekin eta herri-tarrekin izandako kontaktuak

benetako mestizajea ahalbidetu zuen. Euskal Herrian hainbat baldintza eman ziren ijitoak gusturago senti zitezen. Estatuan beste inon ez ziren ematen: gutxiengo bat izatearen sentimendua, hizkuntza propio bat izatea, kultura bat, euskal dun izateagatik bazterketa jasatea, herri bezala biziraun nahi zuen herri bateko partaide iza-

tea... Ijitoak ezaugarri horiekin erabat identifikatuta sentitu ziren. Pentsa, euskararen eta erromintxelaren artean antzekotasun handiak daude, hainbeste, testuingurutik ateratzen badira zaila dela zehaztea zein hizkuntza den bietatik. Bada, horrek guztiak ekarri zuen ijito euskaldunak sortzea; hitz egiten zuten hizkuntzak berak bezala, erro-

mintxela izena hartu zuten», nabarmendu du Vizarragak.

Antza, Europa iparraldetik heldutako ijitoen ondorengoek dira erromintxelak, eta, Kale Dor Kayiko elkarteko kidearen arabera, «fisikoki euskaldunen antza dute, begi eta ile argiak dituzte». Euskaldunek lurrarekin eta baserriarekin zuten loturak ere izan zuen eraginik ijitoen-

gan. «Eskulan beharrak, kinkila konpontzaile edo lurra lantzeko tresnen egile bezala aritzeko aukerak... ijitoak bertan oso ondo sentitzea ahalbidetu zuten, bizi-modua aldatzeraino: nomada izateetik sedentario izatera pasa ziren. Ez da kasualitatea erromintxela familia ezagunenean industria txatartegiak izatea; txatarra erosten dute ondoren birziklatzeko».

Elkarbizitzaren beste adibide bat: «Ijitoena gizarte patriarkala den bitartean, erromintxelena matriarkala da, Euskal Herrikoa bezala. Oso talde interesgarria da. Esango nuke bakarra dela bere gizarte egituraren zati bat utzi duena erreferentziazat duen kulturarenetik hartzeko. Euskal ijitoek beren balore zerrenda aldatu dute euskal kulturara egokitzeko, baina horrek, aitzitik, ez die ijito identitatean galerarik ekarri –baieztatu du-. Hitz gutxitan esateko, erromintxela elkarbizitzaren adibiderik onena da, mestizaje hutsa; ez dago inposizio edo jazarpenik, giza sinbiosia, linguistikoa eta soziologikoa baino ez dago, modu naturalean sortutakoa».

Etxeberría, Etxeberría, Etxepare, Vega eta Berrio dira erromintxela familietako abizen arruntenetako batzuk. Lea-Artibai inguruan asko daude, baita Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroan ere. Lehen erromintxela La-

teko. Batean zein bestean, Joaquín López Bustamente da komisarioa. Bere hitzetan, «barrutik» egindako erakusketa da, alegia, ijitoen etxeetatik, egunerokotasunetik, intimitatetik azaldutakoa. Ijitoek beren argazki pertsonalak eskaini dituzte, baina badira tartean benetako altxorra diren bestelako irudiak ere. Adibidez, Nafarroako Unibertsitateak utzitako Robert P. Napper argazkilariaren 1862ko irudia. Estatu espainiarrean egindako ijitoen argazki zaharrena da, Andaluziako le-

kuren batean hartua. Ikertu eta bilatu den arren ez da irudi zahargarik topatu.

«Erakusketak gure kultura Estatuko kulturen parte bezala aurkeztu du, hala delako. Leihoak ispiluengatik aldatu nahi ditugu. Ezezaguna da gure kultura, eta estimu handirik ere ez du gainera», uste du Lopezek. Euskal ijitoaren identitatea eraikitzen ari dela goraipatzen du, eta poztu egiten da. Horregatik aipatzen du Euskal Herrian ez direla 28.000 ijito bizi, baizik-eta 28.000 euskal herri-

tar ijitoak direla. «Aberastasun kulturala da hori, sentimendu identitarioa indartu egiten da, ez du kentzen, erantsi baizik».

Erakusketa Donostiatik beste leku batzuetara joango da, baina nahiko luke Euskal Herriko areto handi batek dokumentu eta elementu guztiak biltzen di-

tuen “Vida gitanas” erakusketa hartuko balu. Horretarako interesa lukeenak Ijito Kulturaren Institutuarekin edo Acción Cultural Española elkartearekin jarri beharko luke harremanetan.

Ijitoen bizimodua ijitoek euren kontatzearen garrantzia goraiatu eta taburik gabe egin

dela azpimarratu du, gai jakinik saihestu gabe: hezkuntza, familiaren pisua, ezkontzak, flamenkoan izandako eragina... «Erakusketak jazarpena islatu arren, etorkizunari begira mezu positiboa helarazi nahi izan dugu, biktimismoa gabe».

IJITOEN EGUNA, APIRILAREN 8A

Apirilaren 8an Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. 1971ko apirilaren 8an egin zen Londresen ijitoen lehen kongresua eta, besteak beste, hantxe erabaki zen banderaren di-

Erakusketa «barrutik» egina dago, ijitoen etxeetatik, intimitatetik. Askok argazki pertsonalak utzi dituzte beren bizimodua eta egunerokotasuna ezagutarazteko

sarte-Orian kokatzen du elkarteak ikertutako artxiboak oinarri. Etxebarria zen bere abizena.

Erromintxelen historia jaso eta dokumentatzeko, 1995ean Kale Dor Kayiko elkarteak ikerketa soziolinguistikoa abiatu zuen Euskaltzaindia eta Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Departamentuaren eskutik, baina hitzarmenak urtebete iraun zuen eta ondoren heldu ziren arduradunek ez zuten soka hartatik tira nahi izan. Hala, zoritxarrez, baliabide ekonomikorik ez izatea argudio, ikerketa ez zen amaitu. Batzuen «interes falta» ere aipatu du Vizarragak. Hori gertatzea «ulergaitza» dela uste du, horregatik, elkarriketa honen bidez erakundeei deia luzatu nahi die, inplika daitezen. «Ikertzen hastean hilda zegoen hizkuntza topatuko genuela uste genuen, eta oso oker ginen!», dio. Gaur egun belaunaldi zaharrenek soilik hitz egiten dute, gazteek euskara ikasten duten neurrian erromintxela alde batera uzten baitute. Horregatik ikerketa berandu baino lehen itxi behar dela uste du.

Hezkuntza sisteman txertatu
Ijitoen bizimoduan aldaketa nagusi bat eman bada, hezkuntzan eman da, alegia, hezkuntza sisteman txertatzean. Vizarragak guztiaren oinarria hezkuntza dela uste du, eta horixe izan zen



Argazkia: Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS



«Euskal ijito edo erromintxelek oso talde interesgarria osatzen dute. Beren balore zerrenda aldatu zuten bertako kultura eta usadioetara egokitzeke. Modu naturalean sortutako mestizajea izan zen, ez inposizioa»

elkartearen aurreneko helburua, eta garrantzitsuenak. «Haurrak ez genituen eskolara eramaten, hasteko ez genekielako eskola guretzat ere bazenik. Ijito komunitatea gizartearen alde batean egon da; gure burua baztertzeaz gain, baztertu ere egin gaituzte. Horri, bizilekua maiz aldatu izana erantzen zaio».

Benetako aldaketa 80ko hamarkadan jazo zen, baina EAEn lurralde bakoitzak prozesu erabat ezberdina izan du ijito neska-mutikoak hezkuntza sisteman txertatzerako orduan. Bizkaian, Adarra maisu-maistra taldeak azaldu zuen egoeratik kezka, eta bete-betean inplikatu zen. Ijito haurrei ulergarriak izango zitzaizkien eskola materialak egokitzen hasi ziren. «Asko ez ziren eskolara joaten, eta joaten zirenen artean askok ikasketak utzi egiten zituzten. Egoera oso prekarioa zen. Beraien arreta bereganatuko zuen materiala sortzea zen gakoetako bat, beren errealitatera egokitu-ta», oroitu du Vizarragak. Elkar-lana bi norabidetan eman zen, maisu-maistrek ijito komunitatean erreferentzia ziren pertsonen laguntza jaso zutelako.

80ko hamarkada amaieran, Adarratik eskaera zehatz batzuk luzatu zitzaizkion Lakuari. Adibidez, protokolo bat diseinatzea. «Horrek fruitua eman zuen eta 1989an Lakuako Hezkuntza Sai-

seinua: goian urdina, «zerua baita ijitoen teulatua»; behean berdea, lurra irudikatzen; eta erdian gurdi baten gurril handia, «bizitza nomada irudikatzen». Gurdiaren kolore gorriak bidean isuritako odola gogoratzen du.


Donostian harrera egingo zaie udaletxean ijito elkartei eta Nautikoan Ibaiaren Zere-monía irudikatuko da. Aurretik, apirilaren 6an, emakume ijitoei buruzko mahai ingurua egingo da Aieten bertan.



la eta Bizkaiko Aldundiko Ongizate Saila elkarrekin eseri ziren. Ondoren, Kale Dor Kayiko eratu genuenoi deitu gintuzten. Absentismoaren aurkako protokoloa Adingabeen Fiskaltzara ere igorri zen eta udal askok ere sinatu zuten, Eudel elkartearen bidez. 90ean zazpi talde sortu ziren, besteak beste, Bizkaiko familiekin lan egiteko, informazioa eta baliabideak eskaintzeko». Garapena handia izan da, eta denbora laburrean gainera. «Horregatik, gaur egun umeen eskubideez eta helduen erantzukizunez hitz egiten dugu».

Araban eskolaratze prozesua Gao Lacho Drom elkartearen eskutik eman zen, eta Elizarenetik, boluntarioen bidez. Tio Bartolok egindako lana goraiatu du Vizarragak, Caritasekin zuen harremana gogora ekarriz egindako bidea ulertarazteko.

Gipuzkoan egoerak ez zuen zerikusirik ez Bizkaikoarekin ezta Arabakoarekin ere. Batetik, ijitoen dispertsio handia ematen zen, eta horrek ijitoak zentro jakin batzuetan ez pilatzea eragiten zuen. Ondorioz, lehen begirada batean behintzat, erakundeentzat ez zegoen arazorik. Eta hortxe dago koska. Vizarragaren arabera, «erakundeek eurentzat egoera bat arazo bilakatzearan bakarrik ematen dute konpontzeko urratsa, ez lehenago. Inoiz ez dute pentsatzen, be-



Argazkia: Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

raiek, erakunde bezala, arazo ote diren hiritarrentzat edo ez». Horri erantsi behar zaio Donostiako Errekalde auzoan, Añorgan, ijitoen hezkuntza maila «ijito ez ziren haurren mailan jartzeko zentroa» zegoela. Eta hori, azkenean, ghetto bilakatu zen. «Gure ardura horrekin amaitzea zen, haurrak hezkuntza sistema arruntean sar zitezen. Bitartekoak sortu eta zerbitzuak koordinatu beharra zegoen. Zorionez, 97an edo 98an itxi zituen atea eskola hark».

Guztietan Bizkaikoa izan da sistema eraginkorrena, batez

ere lantalde zehatzak sortu zirelako, azpiegitura eta bitartekoak eskainiz bai erakundeetatik baita ijito komunitatetik ere, dinamika oso bat sortu arte. Gaur egun neska-mutiko ijitoen eskolaratze tasa ia %100ekoa da, baina absentismoan oraindik asko dago egiteko.

«Familia», gizarte txiki bat


Ijito herria hobeto ulertzeko beren usadioak aipatu behar dira ezinbestean, baita «familia», beren «mini-gizartea», egituratzeko duten modua ere. Vizarragaren hitzetan, ijitoarena gizarte

patriarkala, piramidala eta patrilineala da. «Patriarkala da gizonak duen paperagatik, baina horrek ez du esan nahi emakumeak ardurak ez dituenik. Etxeko erabaki asko biek batera hartzen dituzte, eta badaude emakumeak soilik erabakitzen dituen gauzak, baina gizonak 'kanpo harremanetarako ministroaren' papera egiten du nolabait: erabakien ardura darama eta etxetik kanpo ikusten den aurpegia berea da». Adina sexua baina baliotsuagoa dela ere erantsi du; hala, boterea zaharrenetik gazteenera erabiltzen

da. «Horregatik, gerta daiteke familia batean adineko gizonik ez egotea eta emakume heldu batek hartzea familiaren ardura hurrengo belaunaldiko gizonarekiko dagoen adin tartea handia delako. Gizonezko hori urteak betetzen dituen neurrian joango da rola hartzen».

Piramidaltasunari dagokionez, belaunaldi edo mailatan sailkatzen dira pertsonak. Oinarrian, haurrak. Ondoren, nerabeak, gazteak, ezkonduak eta helduak. Helduei, *tío* eta *tía* deitzen zaie, letra txikiz, eta ez du esan nahi denen izeba-osaba direnik, estatusa adierazteko balio duen hitza da. Azken maila ez da erpin bat, piramideak punta faltako balu bezala, ez duelako pertsona bakarrak osatzen. Bertan daudenak *TÍO* eta *TÍA* dira, letra nagusiz. Vizarragak argitu nahi du ez dietela *patriarca* deitzen. Gizon zein emakumeak heltzen dira azken urratsera, eta ez dira adinekoak izan behar ezinbestean, baizik ume izan direnetik «ijito legea» aintzat hartuta ibilbide eredugarria izan duten pertsonak. «Ezin du edo nork azken urratsera heldu. «Badi 50 urterekin *TÍO* direnak eta 70ekin *tío* direnak».

Neurria hartzearen, «familia» txiki batek 200 kide ditu, 300 eta 400 bitartean ertaina da. Euskal Herrian dagoen ijito kopurua kontuan hartuta, familia



Ezker-eskuin, ijito kokaleku bat Sevillako abere ferian 1920ko hamarkadan, aita bat alaba eskutan, Manolo de la Maria flamenko kantaria (Alcala de Guadaira, 1963), eta neskato talde bat erromeria batean.

Sevillako Udal Fototeka-Isabel MUÑOZ-David GEORGE-Donostia Kultura



Erromintxelaz hainbat hitz

Ama	Batia
Aita	Batoa
Neskatila	Elakria
Mutikoa	Txaua
Etxeke andrea	...Kereko egaxia
Etxeke gizona	...Kereko egaxoa
Ni	Aimenge
Etxea	Kerea
Denda	Mertxa
Begia	Ankaia
Eskua	Basta
Hanka	Pindrua
Burua	Keroa
Katua	Txitxia
Txakurra/Polizia	Txukela
Ogia	Mandroa
Sagarra	Pabana
Ura	Pañia
Esnea	Zuta
Ardoa	Mola
Kaka	Fula
Izena	Txipa
Handia	Baroa
Txikia	Txinoa
Polita	Pukerra
Ona	Latxoa
Lan egin	Kurratu
Eskatu	Mangatu
Maitatu	Kamatu
Edan	Piautu
Joan	Najel egin
Jakin	Txanatu
Lapurtu	Txoratu
Lo egin	Zuautu
Ikusi	Dikelatu
Egin	Keautu
Hartu zintudan	...Letu zindudan
Ibiltzen zen	Tetxalitzen zen

gutxi direla aipatzen du. «Familia bakoitza gizarte txiki bat bezala gara. Eta nola zehazten du gizarte batek zer egin daitekeen eta zer ez? Eta zer egin behar den arauak betetzen ez direnean? Horretarako botere legegilea, betearazlea eta judiziala ditugu. Elkarbizitza familien artean nahitaez eman behar denez, ‘ijito legea’ da familiak sisteman egituratzen gaituena». Eremu geografiko bera partekatzen dutenek bete behar dituzte familietako *TÍO* eta *TÍA* direnek idatzitako arauok. Aldiz, bi familiaren artean elkarbizitza arazoak daudenean, hirugarren bat sartzen da jokoan, neutrala dena, alegia, auzian zerikusirik ez duena, eta *kriss* (“legea” romaniz) delakoa antolatzen du. Ki-deok arazoa izan duten bi familiek derrigorrez bete beharreko arau berriak onartuko dituzte «eta bakoitza arduratuko da bere etxean arauok ezartzeaz. *Kriss*-a krisi egoeretan soilik sortzen da. Bere lana egitean desegin egiten da», dio Vizarragak.

Ijito populazioa gaztea da. Ijitoen %50ak 25 urte baino gutxiago ditu eta horietatik %40k 16 urte baino gutxiago. 18 eta 20 urte inguru dituztenean ezkontzeak eragina du, jakina (batez besteko adina 14 urtekoa zen orain urte batzuk). Hortik aurrera daude baimenduta harreman sexualak, ez lehenago, eta seme-

alabak goiz izaten dituzte. Dibortzioarena oso kontzeptu berria dela dio elkarriketatuak, baina kasu batzuetan ematen dela zehazten du. «Inoiz ez nortasunak bateragarriak ez direla argudiatzen bada», adibidez, baina bai, eta berehalakoan, senarraren edo emaztearen alde- tik adulterioa eman bada. Tratu txarren kasuan «lehen aukera» ez dela dio, «baina egoera errepikatzen bada dibortzioa adostu daitekeela» gehitu du.

Ezkontza eguna heltzen denean emakumeari “zapiaren proba” egiten zaio, birjina den edo ez jakiteko. Ohitura hori hala mantentzen dute gaur egun, eta etorkizunean izan lezakeen garapenaz dio «hogeita hamar urte barru proba ginekologiko bat izango dela akaso», baina edozein kasutan iritzi du «garen guztia proba horretan» dagoela.

Mitoak gezurtatzen

Behin egia diren ohiturak azalduta, ijitoen inguruko gezur eta mitoez mintzo da Vizarraga. Ijito emakumeek ijito ez diren emakumeek lortu duten berdintasun maila bera ez dutela onartzen du, baina nabarmendu du pixkanaka horretan ere urratsak ematen ari direla, eta, adibidez, gizonezkoek etxean gehiago laguntzen dutela egun. «Utz gaitzatela gure erritmora gartzatzen», eskatu du.

«Familia bakoitza gizarte txiki bat da, eta, elkarbizitza nahitaez eman behar denez, ‘ijito legea’ dugu familiak sisteman egituratzeko. Bi familiaren artean arazorik ematen bada, hirugarren batek, ‘neutroa’ denak, konpontzen du egoera»

Arrazakeria sufritu dute historian zehar ijitoek eta egun ere sufritzen dute; «asko», dio. Eta hortxe aipatu ditu Vizarragak etxebizitza bat alokatu ahal izateko dituzten arazoak –«jabeak ijitoa zarela ikusten badu ez di- zu alokatzen»– edo lanpostu bat eskuratzeko jartzen zaizkien tra- bak –«nahiz eta ondo prestatuta egon, beti hartuko dute lehenago ijitoa ez den norbait»–. «Jen- deak daturik gabe hitz egiten du, badiote etxebizitzak ematen dizkigutela, eta ez da egia. Erra- za da mina egitea, eta zaila or- dea informazioak gezurtatu eta gure ohorea garbitzea. Mesfi- dantza handia dago gurekiko eta horrek zaildu egiten dizkigu hainbat oinarritzko eskubide. Desilusia eta frustrazioa eragi- ten du horrek komunitatean».

Hainbat jarrera sozial desego- ki egozten zaizkiela ere salatu du: «Elikadura txarra, delin- kuentzia, higie- ne falta, segurta- sun eza... aipatzen dira, baina esan diezadatela *ghetto* batean bizi eta ijito ez den nork ez di- tuen arazo hauek. Arazoak ber- berak dira. Kanpotik begiratu eta herri jakin bati egozten zaiz- kion jarrerak ez dira herri horre- nak, berezkoak, baizik-eta egoe- ra baten ondorioz sortutakoak. Egoera horiek ekartzen dituzten sorburuen aurka borrokatu be- har dugu, horri guztiari itenbi- dea emateko».



«ABSENTISMO ZIFRAK LARRIAK DIRA: EREDUA ALDATU BEHARRA DAGO»

Kale Dor Kayiko elkarteko kideentzat bezalaxe, hezkuntza «guztiaren muina da» Nafarroako Gaz Kalo elkarteko Ricardo Hernandezentzat ere. Haurrak hezkuntza sisteman nola txertatu ziren azaldu baino, arreta beste puntu batean jarri du: gazte ijitoek ikasketak uzteko duten joeran. 2013an Ijito Idazkaritzak eta Unicefek egin zuten txosten baten arabera, %60k ez dute Bigarren Hezkuntza bukatzen; beste ikerketa batzuek %80az hitz egiten dute. «Egoera oso larria da edozein kasutan», dio.

Beste datu deigarri bat ere badago: neskek gradu ertain bat edo goi mailako ikasketak egiten dituztenean mutilek baina emaitza hobeeekin egiten dute. «Neskek proportzio handiagoan uzten dituzte ikasketak, baina jarraitzea erabakitzen dutenen errendimendua edo ikasketa arrakasta handiagoa da».

Hernandezen iritziz, ikasle batek sistema uzten duenerako sistemak lehenago utzi du ikaslea. Familien arduraz hausnartu eta jokatzeko duten paperaz eztabaidatu behar dela onartu arren, sistemak berak ondo funtzionatzeko ez dutela uste du. Lehen Hezkuntzan hasten da arazoa, bere esanetan. Izan ere, ijitoak ez diren haur asko 0 eta 3 urte artean hasten dira eskolara joaten, hau da, boluntarioa denean. Bestalde, ijitoak 3 urterekin hasten dira, alegia, «derrigorrezkoa denean, ez lehenago». «Hortxe badago

ezberdintasun bat bi taldeen artean. Guraso ijitoek bat-batean sistemaren barruan ikusten dute beren burua, eta gehienek ez dituzte Lehen Hezkuntzako haur bati laguntzeko gaitasunak. Pixkanaka umea atzean gelditzen joaten da. Zer esanik ez Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzen direnean...».

Ikasketak zailtasunekin jarraitzen dituzten ikasleekin egiten den moduan, sistema arrunta utzi eta eskola berezietara bideratzen dituzte, errefortzuak eman... Hernandezek dioenez «maximoen pedagogia» egin behar da ikasle hauekin, ez «minimoena». «Ez da nahikoa klasera joatea, zaratarik ez ateratzea, eta etxeko lanak egitea. Ume horrek etxean ez du laguntzarik, gehienetan ardura nagusiak elikadura eta argia izaten dira, eta sistema dagoen bezala egonda irakasleek ezin dute banan-banan, modu pertsonalizatuan inplikatu».

Estatu espainiarrak onartutako Ijito Biztanleria Gizartean Integratzeko 2012-2020 Planaren arabera, Hezkuntzan, Enpleguan, Osasunean eta Etxebizitzan eragitea da garrantzitsua eta ezinbestekoa. Europar Batasuneko kide diren estatuek beren estrategiak diseinatu behar dituzte, eta Madrilek egin du, baina lan handia dago egiteko. Emakumea eta Gazteria arloak ere aintzat hartu beharrekoak dira.



Argazkia: Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

Hitz gutxitan, Gaz Kalorentzat aurrerapausoa litzateke ijito kultura aintzat hartuko lukeen hezkuntza sistema garatzea, beren historia liburuetan jasotzea, babestea, sustatzea. «Nafarroara 1435eko apirilaren 27an heldu ginen, eta, hala ere, oraindik ezezagunak gara», dio penaz.

Ezagutzen den apurra, Hernandezek dioenez, eta hala salatzen du, estereotipoen bidez jasotakoa da. «Usteek, aurreiritziek XV. mendetik jarraitzen gaituzte, eta denboran mantentzen dira, XXI. mendean egon arren. Hezkuntza, hezkuntza eta hezkuntza baliatu behar da eredu iraultzeko». Adibide gisa Gaztela eta Leon jarri du, proposatu egingo duelako ijitoen kultura eskola curriculumean

txertatzea. «Zergatik ez halako zerbait Euskadin eta Nafarroan?», proposatu du. «Errekonozimenduak, gu ezagutzeak, interesa azaltzeak gure herriaren autoestimua indartzen lagunduko luke, zalantzarik ez dut. Ijitoak beti egongo gara harro ijitoak izateaz. Eta liburuetan azaldu nahi dugu, ez telebistako show jakin batzuetan, edo beste mota batzuetako kroniketan. Gizartean parte hartu nahi dugu, gizartearen parte izan, gure historia gurea izateaz gain denona ere badelako».

Azken baieztapen horrek baditu izen-abizenak. Tio Javier Etxeberrria *El Txuntxunero* eta Agustin Castellon *Sabicas* ijito nafarrak. Lehenak txistua jotzen zuen; bigarrena mundu mailan erreferente izan zen gitarra jotzen.



Ezker-eskuin, ile-apaintzaile izateko ikasten ari diren hainbat neska gazte, Donostiako erakusketaren irudi bat, abere tratulari bat azoka batean, Carmen Amaya «Los Tarantos» pelikula filmatzen (1962) eta garai bateko Casa Antunez auzoko bizilagunak (Bartzelona, 1960).
Jesus SALINAS - Jon URBE | ARGAZKI PRESS -
Donostia Kultura - FilMOTECA Española -
Jacques LÉONARD